

Etxean Kontu Kantari 2016/11 (II)

Kanika txikia

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainetik*. Galtzagorri elkarte.

Kanika txiki bat dabil
Saltoka eskutik eskura.
Nork ote du?
Nork ote du?
Nork ote du
Gure kanika.

Jokalari bakoitzak esku- ahurrak elkarturik izango ditu. Buleak bi eskuen artean gordetako kanika pasako du jokalarien esku tartetan eta erortzen utziko du besteak konturatu baino lehenago. Besteek asmatu behar dute zeinen eskuetan utzi duen aurrekoak kanika erortzen eta kanikaren jabe berria korrika aterako da bulea harrapatzen.

Maria Goikoarena

Zubizarreta, I. (2011). *Jolas Molas*. Galtzagorri elkarte.

Maria Goikoa...!
MARIA GOIKOA!
Zer duzu behekoa?
–Iturrira al zatoz?
Ez,!
Zergatik bada?
Senarra etorri.
Senarra etorri, eta zer ekarri?
Zapata eta galtzerdi.
Eta zer kolore?
Txuri, gorri eta kikirriki!

Buruz ikasi eta antzeztu etxeko festatxoetan.

Anjel Lertxundi eta Antton Olariaga. (2011). *Maria Goikoak batbirulau!* Erein. Klis-klasikoak.

Ezteien gonbidapena

Zubizarreta, I. (2011). *Jolas Molas*. Galtzagorri elkarte.

Honek eta honek eta honek
Bart ezteiak zituzten.
Honek honi zer esan?
Gonbidatzeko hau eta hau.
Gonbidatzaile hau eta hau,
Horra non diren hogeita lau.

Olerkia biko erritmo bizkor-bizkorrean esaten denarekin batera, atzamarrak zenbatu behar dira. Norberak egin behar du lan hori: hatz lodia pasako da beste gainontzeko atzamarrak zenbatzen. Lehenengo lauak zenbatu ostean, konpas bat eskainiko zaio hatz lodiari eta bera bakarrik geratuko da airean, une horretan dantzari. Hogeita lau esatean, hatz bizkorrera iritsiko gara.

Pinpili gora

Zubizarreta, I. (2011). *Jolas Molas*. Galtzagorri elkarte.

Pinpili gora, pinpili behera, pinpilipauxa eta hegabehera.
Pinpili gora, pinpili behera,
Hegan eta hegan denok batera.

A. Lertxundi

Buruz ikasi jolasa egin ahal izateko.

Bi lerrotan jarri elkarren aurrean; batzuk pinpilipauxak, besteak hegabeherak. Pinpilipauxak zutik jarriko ira “Pinpili gora..” eta hegabeherak makurtu... Gero alderantziz. Azkenean denak hegan ateratzen dira nahi bezala.

Animaliak hizketan

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Zakurrak zaunkaka,
katuak miauka,
zaldiak irrintzika,
astoak arrantzaka,
txoriak txioka,
oilarrak kukurruka,
ardiak beeka,
behiak marruka.
A ze abaraska.

Ala kinkirrinera

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainetik*. Galtzagorri elkarte.

Ala kinkirrinera,
ala xangurrera,
Maritxu plazaberriko
jira hadi beste aldera!

Korro jolas bat da hau: haur bakoitzaren esatearekin batera, honek buelta emango du; korroaren erdira begira geldituko da. Denak erdira daudenean, lurrean eseriko dira batera.

Ring-ring!

Ring-ring!
–Nor da?
–Irakaslea da.
–Ring-ring!
–Esan.
–Gaur ez zara eskolan izan.
–Ring-ring!
–Kaixo.
–Gaur minez nago eta bihar gaixo.
–Ring-ring.
–Bai.
–Etzi lanik ez, etzidamu jai.
–Ring-ring!
–Eunate.
–Agur andereño, hurrengo asterarte!

Elkarrizketa hau antzezen txikiak egiteko.

Txorien habiak

Zubizarreta, I. (2011). *Jolas Molas*. Galtzagorri elkarte.

- Aita, non egiten du kukuak habia?
- Txantxangorri habian, lapurtuz tokia.
Trala rala lapurtuz tokia...
- Aita, non egiten du eperrak habia?
- Gari -soro erdian, poliki jarria.
Trala rala, poliki jarria...
- Aita, non egiten du txepetxak habia?
- Gaztain zulo erdian, goroldioz josia
Trala rala, goroldioz josia...
- Aita, non egiten du gau hontzak habia?
- Elizako sabaian, saguzarrez betea.
Trala rala, saguzarrez betea...

Lagun askoren artean egitean, bi lerrotan banatzen dira jokalaria: lehenengo bi ahapaldiak bukatzean erdian biltzen dira. Trala lara... kantatzean, eskutik helduta dantzatuko dute jokalariek.

Maria Gonagorri

Zubizarreta, I. (2011). *Jolas Molas*. Galtzagorri elkarte.

- Maria Gonagorri,
biharko zer berri?
- Bihar beti bezala
eguzki ala euri.
- Euria baldin bada?
–Aterkia ireki.
- Eta eguzkia bada?
–Kapelua jantzi.

Antzerki bat eraiki. Maria gonagorriek, mari gorringoek amona mantangorriek, mari gorriek eguraldia iragartzen dute, ba al zenekien? Udaberri partean, horietako bat harrapatu eta hatz bizkorraren gainean jarri; putz egin eta hegan ateratzen bada eguraldi ona dator, atzamarraren gainean geratzen bada euria dator, edota alderantziz...

Tilin Tantala-lan

Zubizarreta, I. (2011). *Jolas Molas*. Galtzagorri elkartearen.

- Tilin tanta–lan, tilin tanta–lan.
- Nor da tilin–tantalaka atean?
- Afrika urruneko beltz bi gara gu.
Arren, emaguzu ostatu!
- Pasatu aurrera eta esan
zer dakarzu hor aldean.
- Usain goxoko libra bi,
gure lagunarentzat opari.
- Opariarekin zer egingo?
- Txokolate beltxin–beltxingo.
–Txokolatea norentzat?
- Gure bihotz xokoko lagunentzat.
- Eskerrik asko, beltxaran eta beltxirin.
Maite zaitugu eta on egin

A. Lertxundi

Istoriotxoak ondo kokatu eta antzerki bat egitea proposatu. Pausoak ondo planifikatu, eta arrakasta handia jasoko dute elkarriketa polit honekin.

Koko miko

Zubizarreta, I. (2011). *Jolas Molas*. Galtzagorri elkartearen.

Koko miko koko miko,
geldirik hor mutiko.
Koko miko mikotin
kraskinola kriskitin.

Koko miko koko miko
sugea etorriko,
mizto zorrotza txistuz
zu nondik irentsiko.

Koko miko koko miko
amak burua hautsiko
suge zaharra utziko du
hondatuta betiko.

Jolasean eta kantuan aritzeko.

Hain urrin etxe poxpola

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik mintzora*. Galtzagorri elkartearen.

Hain urrin etxe poxpola, ola, ola!
Tximinitik gora kea dariola, ola, ola!
Gaintxoan arbola zelai erdian,
erreka pol - pola etxe atarian:

Trailara, eta trailara
dena txiki- txikia, txikia horra.

Jo atexoko txilina, ola ola!
Sutondoan kuzkur lo - lotan mitxina, ola, ola!
Sutan danbolina gaztain erretzen,
lapikoan gal - gal babak egosten:
Tra lara...

Badator etxeoandrea, ola, ola!
Begitxoak ñir - ñir, ahoan irria, ola, ola!
Zuri - zuri ilea eta buru - zapia,
zuri - gorri umea jaio - berria:
Trala rala...

Magaltxoan estutzen du, ola, ola!
Urrumakatzen du, urrumakatzen du, ola, ola!
"Gure txikitxo, egizu lo - lo,
lo - lo txikitxo bat, apapa gero":
Trala lara...

Kantatzen den bitartean keinuak egiteko...

Akerra ikusi dugu

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik mintzora*. Galtzagorri elkartea.

Akerra ikusi dugu baratzean jaten,
makila ikusi dugu aker hori jotzen.
Makilak akerra, akerrak artoa, akerra ken
Baratzetik akerra ken, ken, ken, ken, ken.

Sua ikusi dugu makila hori erretzen,
ura ikusi dugu, su hori itzaltzen.
Urak sua, suak makila, makilak akerra, akerrak artoa, akerra ken.
Baratzetik akerra ken, ken, ken, ken

Behia ikusi dugu, ur hori edaten,
soka ikusi dugu, behi hori lotzen.
Sokak behia ,behiak ura, urak sua,
suak makila, makilak akerra, akerrak artoa, akerra ken.
Baratzetik akerra ken, ken, ken, ken, ken.

Xagua ikusi dugu, soka hori etetzen,
katua ikusi dugu, xagua harrapatzen.
Katuak xagua, xaguak soka, sokak behia
behiak ura, urak sua, suak makila
makilak akerra, akerrak artoa, akerra ken.
Baratzetik akerra ken, ken, ken, ken, ken ...

Ezetz nahastu gabe esan...